

Irakaskuntza



EHUko irakasleen komenioa atzo sinatu zuten

CCOOk ez du sinatu Euskal Herriko Unibertsitateko lan komenioa

G.A. / BILBO

CCOOk ez zuen sinatu atzo Euskal Herriko Unibertsitateko Mahai Sektorialeko gainontzeko hiru sindikatuek —ELA, UGT eta CESIF— Errektoretzarekin lortutako lan baldintzen akordio arautzailea. Akordio honetan ez dira lan kontratudun irakasleen lan baldintzak aurrikusten, gainontzeko langileen baldintzak baizik.

Hiru sindikatu, Errektoretza eta Administrazio ordezkariek oso positibotzat jo zuten atzo sinatutako akordioa, «Unibertsitatean lortzen den lehen akordio sindikala da eta EHUko lan esparru propioa finka-

tzen du. Akordio honek hobekuntza garrantzitsuak suposatzen ditu, % 7,6ren gorakada aurrikusten bait da».

Akordioak 1992-93. ikasturtera arte bermatzen die lanpostua klausuladun kontratu administratiboa sinatu zuten irakasleei.

Behin-betirako akordioa aztertu ondoren, asteartean erantzuna emango duen CCOO sindikatuak «pobretzat» jo zuen lortutako komenioa, «legearen transkripzio hutsa dela argudiatuz».

Bestalde, lan kontratudun irakasleek uztailaren 2an bilera egiteko proposamena egin zioten atzo Emilio Barberari.

Alejandro Llano NUko errektore berriak atzo hartu zuen kargua

A.U. / IRUNEA

Alejandro Llanok, filosofia irakaslea eta metafisikan katedradunak, Nafarroako Unibertsitate pribatuak errektore kargua hartu zuen atzo.

Errektore berriak ekitaldi ofizialaren ostean azaldu zuenez, hamabi urtez kargu hori izan duen Alfonso Nietoren ardatzak jarraituko ditu datozen hiru urteotan.

Hala ere, zenbait aldaketa nahitaezkoak izango direla nabarmendu zuen Llanok, «hezuntza plangintza berriak horretara behartzen gaitu eta». Ildo beretik, zenbait arlotan Nafarroako Unibertsitate pribatua

aitzindari izan dela ziurtatu zuen madrildarrak. «Dietetika ikasketak dagoeneko martxan daude eta Arkitecto Teknikoenak hastear» gogoratu zuen.

Ikasketa berriei dagokienez, pertsonalki gustokoenak Hizkuntza Klasikoak eta Matematikak dituela jakin erazi zuen Llanok, «horiek lortzea oso zaila izango dela» aitortu arren.

Ziurtat jo zuen, ostera, karrera amaitu dutenentzat masterrak eta antzeko ikastaro bereziak eskainiko direla NU pribatuan. Hori izango da, errektore berriaren ustez, «berrikuntzarik aipagarriena».

Ardanzak inauguratuko ditu Donostiako Udako Ikastaroak

DONOSTIA

Udako Ikastaroen inaugurazio ekitaldian izango da Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakaria. Udako Ikastaroen X edizioa Donostian hasiko da uztailaren 8an, eta 4.000 ikasle inguruk hartuko dute parte bertan, atzerritarrak eta guzti.

Fundazioko lehendakariak eman-

go ditu irekitzat Udako Ikastaroak, Hegoameriketako egungo arazoei buruzko kurtsoa inauguratuko duen hitzaldia eskainiko du. Udako ikastaroaren iraupena bi hilabetekoa izango da. Uztailaren 8an hasi eta irailaren 7an amaitzeko. 400 irakasle izango dira eta 40 ikastaro, mintegi, eta nazioarteko zazpi ikastaro eman- go dira Udako Ikastaroetan.

Armadaaren untziek Greenpeaceko bost partaide atxilotu zituzten atzo

Barakaldoko epaitegiak 'Baltica' «askatzeko» ordena eman zuen

Fragata militar batek Greenpeace taldeko bost partaide atxilotu zituzten atzo 'Baltica' zamauntzia desblokeatzeko manatua hartu eta gero. Ekologistak 'MV Greenpeace' untzia barruan gorde ziren, militarrek beraiengana joango zirelakoan.

DONOSTIA


Ekintza hau burutzeko ordena Barakaldoko laugarren instrukzio epaitegiak eman zion Itsas Komandantziari. Ondoren fragata bat eta bi 'Zodiac' 'Baltica' untzia zegoen lekurantz abiatu ziren. Zenbait iturriren arabera, fragata Santander edo, agian, Pasaiaiko portutik joan ziren Santurtziko porturantz.

Epaitegiaren ordenaren berri izan bezain laster, talde ekologistak hiru 'Zodiac' igorri zituen Santurtziko portura, isurkinak daramatzen 'Baltica' zamauntzirantz eta Armadaaren fragatak hiru untzia hauetako bi zulatu zituen. Ondoren bost pertsona atzetan zituzten militarrek eta 'Baltica' untzia desblokeatu.

Bitartean, 'MV Greenpeace' itsasuntziko ekologistek lehorrerako eskilerak jaso eta sarrerak itxi zituzten. Taldeko partaideak untzia barruan gorde ziren Armadaaren untzia beraiek detenitzera joango zirelakoan.

Barakaldoko epaitegiak «bere esku dituen medio guztiak erabiliz 'Baltica' askatzeko» ordena eman zion atzo Komandantziari. Epaileak 'Balticari' «ezarri zaion blokeoa deusezteko» manatu zuen itsasuntzia «hainbat lasterren» Deustuko kanalera heltzeko.

Epaitegiak azaldu zuenez, operazioa burutzeko ordena 'Balticaren' armadoreek egindako denuntziaren ondorioz iritsi zen. Denuntzia Greenpeace itsasuntziko kapitaina



'Baltica' untzia ez diote sartzen uzten Greenpeacekoek.

J. SIMAL

den Bart Termielen kontra gauzatu zen, baita bertako armadore eta tripulazioaren aurka ere.

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, agiri bat kaleratu zuen atzo azken egunotako tirabirak direla eta. Agiriak zioenez, Euskal Autonomi Elkartearen sortutako altzairu hautsak ingurugiroa kontutan izango duen tratamendu egoki bat izango dute sei hilebete

barru. «'Baltica' untzia zamak Europako Elkartearen arautegia betetzen du bere osotasunean» jarraitzen du agiriak, eta sortu den arazoari irtenbidea emateko asmoz, untziko zamari, behin lurreratu ondoren, dagoen azterketak egingo zaizkiola ziurtatzen du Eusko Jaurlaritzak «hondakinen osagaiak aztertzeke asmoz».

EAEko udaletako kideek heziketa juridiko-ekonomikoa jasoko dute

LUIS KARIOS GARCIA / GASTEIZ

Euskal Autonomi Elkarte (EAE) udaletako zinegotzi eta alkateei zuzendutako heziketa-ikastaroak aurkeztu zituzten atzo Lakuan Jose Manuel Goikoetxea Nekazaritza sailburuak eta Jose Maria Zorrilla EUDELeko lehendakariak, antolatzaileren ordezkapen bezala. Uztailaren 1, 2 eta 3an hasiko dira Biasteri, Gernika eta Tolosan, «administrazio lokalen funtzionamenduari buruzko oinarriko ezagutzak emateko asmoz».

Jose Manuel Goikoetxeak adierazi zuenez, Administrazio Publikoaren egitura eta antolakuntza ezberdinak dira enpresa edo elkarte pribatuko aldean. «Honek heziketa dakar ezinbestean eta are gehiago herri mailan, bertako udalen di-

mentsio txikia, ahalbide urriak eta aholku-tresnetara iristeko dituzten zailtasunak kontutan harturik», zehaztu zuen Goikoetxeak. Nekazaritza eta Arrantzako Herri-Garapena eta EUDEL, EAEko udalen elkarte dira antolatzaileak.

Ikastaro edo «hitzaldi juridiko eta ekonomikoa, korporazio lokal berrietako partaideei begira prestatu ditugu», esan zuen Zorrilla EUDELeko lehendakariak. Araban izango da aurrenekoa, herrialde honen «herri-izaera nabariagoa» dela eta. Udal nahiz Biltzar Administrazioetako kideek hartuko dute parte. Araban, Biasterin hasiko dira, ondoren Maeztu, Lantaron eta Aiara. Bizkaian Gernika izango da abiapuntua, gero Durango eta Balmasedara pasatzeko. Gipuzkoan, Tolosatik Ordizia eta Azpeitiara joango dira.

Sakanako autobidearen aurka Ingurugiro Zerbitzuak

IRUNEA

Nafarroako Ingurugiro Zerbitzuak ez deritza ongi Sakanako autobidearen lanerako Andia magalean harrobi bat irekitzeari. Zerbitzuak ez du erabakirik hartu, baina Mankomunitateari erantzunez, «kontrako iritzia» duela esan du, «inguruak dituen ezaugarriak direla eta». Harrobia lanen hornikuntzarako izango litzateke, eta Ingurugiro Zerbitzuak Mankomunitateari esan dionez, erabaki finko bat hartzeko beharrezko txostena zabaldu beharko litzateke.